

# Prensa oharra

## Nota de prensa

### **Ekialdeko Barrutiak eta Udalinfok bulego berriak izango dituzte Altza auzoan**

*Tokiko Gobernu Batzordeak onartu dituen beste gai batzuk: Uliako errepidea, Prim, 10 eraikina, Salaketen kudeaketa telematikoa, Txapiñene plaza, Instalazio fotovoltaikoak, Seinale horizontalak margotzea, Ibai Parkea*

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Udalinfo eta Ekialdeko Barrutirako lokala Altza auzoan egokitzeko egikaritze eta jarduera proiektua, 346.292 euroko aurrekontuarekin eta 6 hilabeteko egikaritze epearekin.

Eneko Goia alkateak nabarmendu duenez, "jarduera honi esker, Ekialdeko Barrutiak eta Udalinfok bulego berriak izango dituzte Altzako erdigunean, irisgarriagoak, herritarrei zerbitzu hobea emateko".

Proiektua Altza auzoko Jolastokieta Gainako erabilera sozialera bideratutako azaleraren zati batean garatzen da. Harrobieta plazako 17. atariari dagokion bizitegi eraikin isolatuaren beheko solairuan dagoen lokalaren hegoaldeko erdia hartzen du. Eraikin hori sortu berria da eta Txirrita Bertsolari kalearen mugakidea da. Proposamen honek 250 m<sup>2</sup>-ko jarduketa azalera du.



Bulego programa hau hainbat gunez osatuta dago: Udalinfoko herritarrentzako arreta bulegorako areto bat, herritarrei arreta emateko 3 postuekin (44,40 m<sup>2</sup>), eta Ekialdeko Barrutiko Batzarraren gobernu organoaren egoitzarako gune bat, bi bulego (22,60 m<sup>2</sup> +

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



13.10m2) eta bilera eta batzar areto bat (71 m2), itzulpen gela (3,85m2) eta instalazio aretoa (13 m2) dituena. Instalazioan erabilera publikoko bi komun (13,60 m2) eta langileentzako *office* bat (11,25 m2) daude.

Sarrerak Udalinfoko gunera ematen du zuzenean, langa baten bidez (10,60 m2). Bertan, bulego ordutegitik kanpo erabili ahal izango diren bi autotramitazio makina berri jarriko dira, ondoan kontrol gela bat dagoela (6,90 m2).

### **Uliako errepidea**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Construcciones Zubieder SL enpresari esleitzea 124-126 eta 128 eraikinen parean Uliako errepidea berreraikitze proiektua gauzatzeko kontratua. Jarduketak 84.005 euroko aurrekontua du, eta bi hilabeteko egikaritze epea.

Proiektuaren xedea lur-jausi batek eragindako errepide zatia egonkortzeko eta galdutako zabalgunearen zabalera berreskuratzeko beharrezkoak diren obrak zehaztea da. Proiektuak, gainera, lur-jausiak suntsitu zituen bide elementuak berreskuratzea aurreikusten du, batez ere areka eta hesia.

### **Prim, 10 eraikina**

Tokiko Gobernu Batzordeak behin betiko onartu du Bilbo plaza 1 eta 2, Prim 10 eta Getaria 23 kaleetan dauden eraikinek osatzen duten Eskuhartze Unitatearen Xehetasu Azterlana.

Prim kaleko 10. zenbakian dagoen eraikina birgaitzeko eta handitzeko asmoa dago, etxebizitza eraikin bihurtzeko. Helburu hori kontuan hartuta, Xehetasun Azterlanaren helburua da PEPPUC ondarea babesteko plan bereziak mugatutako Eskuhartze Unitatea osatzen duten eraikinetako jasoduren konfigurazioa definitzea.

### **Salaketen kudeaketa telematikoa**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Estacionamientos y Servicios SAri salaketen eta salaketa akten kudeaketa administratiborako sistema telematiko bat hornitzeko kontratua esleitzea, 57.050 euroko aurrekontuarekin eta bi urteko egikaritze epearekin.

Kontratuaren xedea da salaketen eta salaketa akten kudeaketa administratiborako sistema telematiko batez hornitzea Donostiako Udala. Horretarako, kontratuak irauten duen bitartean, erabiltzeko eta administratzeko lizentziak emango ditu, honako hauek barne hartzen dituen aplikazio batean: salaketak eta aktak erregistroan jaso, izapidetu, jakinarazi eta kobratzea; laguntza, mantentze lanak eta sistemaren balizko eguneratzeak; aplikazioa erabiltzeko behar den prestakuntza ematea; aplikatu beharreko araudia aldatuz gero, aplikazioa ere aldatzea; Udalaren beste aplikazio batzuekin lotzeko behar diren aldaketak; zerbitzua agenteen lan plataforman eta gailu

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



mugikorretan ezarri beharreko aldaketa teknologikoetara egokitzeko behar diren aldaketak.

### **Txapiñene plaza**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Landa e Imaz SAri Txapiñene 1-3 inguruko plaza urbanizatzeko proiektua gauzatzeko kontratua esleitzea. Kontratuak 4 hilabeteko iraupena izango du eta 326.409 euroko aurrekontua.

Kontratu honen helburua Txapiñene 1-3ko bi etxebizitza dorreen, lokalen eta garajeen inguruan dagoen plazaren urbanizazioa berritzea da, lokalek eta aparkalekuek plazaren azpian dituzten hezetasun ugariak direla eta.

Obrak bi zati nagusitan bereiziko dira: plaza inpermeabilizatzea bere erorketekin eta uren ebakuazioarekin, komunitatearen kontura; eta zoladurazko akaberak, ura biltzeko kanaletak, argiteria, barandak eta hiri altzariak, Udalaren kargura.

### **Instalazio fotovoltaikoak**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du autokontsumorako 7 eguzki instalazio fotovoltaiko, banakakoak eta kolektiboak, 215 kW-koak, instalatu, legeztatu eta martxan jartzeko proiektua. Obrak egiteko aurreikusitako epea 6 hilabetekoa da, eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 330.384 eurokoa.

Honako eraikin hauetan 7 instalazio fotovoltaiko egitea proiektatu da (autokontsumorako erregimenean sarearekiko paraleloan konektatutako eguzki-instalazio fotovoltaiko bat, 7 instalazio fotovoltaikoetatik 6 kolektiboak izanik):

- Zuhazti Aldakonea ikastetxea (66,6 kWp autokontsumorako)
- Amara Berri Salaberria ikastetxea ( 27,9 kWp)
- Aiete Ikastetxea (36 kWn)
- Urdaneta eraikina (36 kWn)
- Orixe Urgull ikastetxea (15 kWp)
- Igeldo Ikastetxea (18 kWp)
- Igarako Brigaden eraikina (15 kWp)

Jarduera honen bidez, instalazioek urtero 247.698 kWh ekoiztea espero da, 50.530 kg CO2 isurtzea saihestuz eta urteko fakturazio elektrikoan 40.776 euro aurreztuz. Horrela, 25 urteren buruan, instalazioak 1.306.000 euro aurreztuko ditu, elektrizitatearen prezioaren urteko % 2ko igoera kontuan hartuta.

# Prensa oharra

## Nota de prensa

### Seinale horizontalak margotzea

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Diez y Compañía SA enpresari esleitzea bide publikoan seinale horizontalak mantentzeko margoketa eta birmargoketa zerbitzuaren kontratua, 4 urteko egikaritze epearekin eta 80.000 euroko gehieneko aurrekontuarekin.

Egin beharreko lanak elementu hauek margotu eta berriro pintatzeko zerbitzua gauzatzea da: hiriko bide ardatzak, zeharkako marken seinaleztapena, pasabideak eta inskripzioak, seinaleztapen horizontala eta aparkatzeko ertzekoa eta erreserba publikoak administrazio emakidarik gabe.

### Ibai Parkea

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Ibai Parkea eta Lugañene pasealekua lotzeko proiektua, 188.581 euroko aurrekontuarekin.

Partaidetzazko Aurrekontuen ondorioz, Udalak proiektu hau garatzea erabaki du, Ibai Parketik datorren bide berriari jarraipena emateko. Horretarako, 2,50 m-ko zabalera bi bidek osatutako lotura bat egingo du, oinezkoentzat eta bizikletentzat, hormigoizko oinarri baten gainean asfaltozko zoladura jarrita.

Proiektuaren eremua zabalera aldakorreko bide batetik igarotzen da. Haren muturretako bat Lugañene inguruan dago (zehazki, 27. Poligonora sartzeko biribilgunea eta Martutene pasealekua lotzen dituen lotunearen adarraren espaloia), eta beste muturra Urumea ibaira isurtzen den erreka bat gurutzatzen duen pasabidearen estribuan dago. Ibilbidean zehar, zabalgunea igarotzen da, eta bertatik sartzten da *Donostia Arraun Kirolak*-en instalazioetara. Era berean, baso txiki bat dago, eta, bertan, tamaina handiko eta nolabaiteko ingurumen balioa duten zuhaitz batzuk nabarmentzen dira.

Donostia, 2022ko otsailaren 8a